



Belarraren nekeak eta pozak

Aurtengo udaberriari etzlon infortxok kantu gozorik joko, gurean beñepein. Udaberri zipotzak ezagutu ditugu leenago ere, baña aurtengo arek marka guztiak ausi zituala, aitortu bearko: betiko otz-busti arekin kristauak ez-elik gure soro-belazeak ere ondo illunak eta zapuztuak egonak dira luzaroan. Esaera da: "Apirilaren atzenean, ostoa aitz-gaitean". Azkenengo ontan, beñepein, beste aldera jo zuan kukuak.

Belarrak illabeteko atzera ekarri zuten, gutxienez. Ta esan gabe doa, ortik kalte aundia datorrela baserriarentzat: belarra baita gure ganaduaren jatenik merkeena ta jatorrena. Egularia zerbait gozatzan asi zanean, belarrak ere laister egin zuan bere lana: goizetik gabera jantzi ziran gure belaze ta zelaiaik.

Baña, baña... belarrak ere baduala bere nekea ta lana. Nola sartu barrura? Aurtan, batez ere, eguraldiak laguntzen ez, eta kolpean etorri zitzaizkigun buruauste ta lan guztiak. Patatak egin bear! Artoa ereiteko lurrak pres-tatu bear! "San Markos, San Markos, artoak eginda balegoz!", esaten zuten gure zaarrak. Tokitan gelditu ziran aurtan gure atsegin ta pozak. Besterik, berriz, belarrak ebako eta igartzeko segurantz zielaigo nai, eta or gelditu ziran gure belazeak zakar ta ustel: ontzaren ujuari begira...

Orixe bera gertatu zitzaigun igazko urtean ere. Azkenik berandu batean, neke ta izerdi, gure belarrak sartzeko aukera izan gen-dun orratik. Baña legorte zakar batek gure mendi eta belaze eta zelaiaik gorritu zituan, eta joan adi gero bilbelar gozoaren billa.

Aurtengo ontan belar-zulo edo siloak zituzte-nak, bai, oiek baliatu dira poliki-asko. Bere garaian eta sasoi ederrean bota zituzten belar-rak eta belar-zuloetan sartu eta ikullu-aldea poliki-asko ornitu zuten negurako. Ta ori gutxi balitza geroko beroarekin indarberritu ta jans-tzita ikus dituzte berriz ere beren baztarrak.

Ortik atera genezake belar-zuloak zer esan nai duan baserri batentzat. Ta alare ain gutxi billatuko dituzu oraindik! Etsipenaren arrak jota gaudela erabat, aitortu bearko.

Egia da banaka banaka azaizten ari zaizki-gu belar-zulo zorioneko oiek ere eta etxetik kanpora gelenean. Baña ni nago errexenak, errosenak eta merkeenak ikullu barruan jaso dituztenak dirala. Usai gaiztoa dutela! Gaiz-toagoa du goseak eta alperrikako nekeak!



Ta nekeak aipatu ditugun ezker, belar-igarketak baditu bereak eta bost. Egunaik joan eta egunak etorri, begiak urratzen dituzularik, zerura begira egona zera, eguraldi noiz ondu-ko zai eta zai. Alako batean sail bikaña bota dezu zure zelai ortan. Zabaldu ere bai ondotik eguzki eder baten itxaropenean. Ez alperriki! Kukuak makur jo dizu oraingoan ere. Ta suria, edo langarra, edo erauntzia atzetik! Ederki asko kantatu du Orixek "Euskaldunak" deri-tzaion poema arrigarrian:

"Urren egunez zabaldu eta langarra amaikak aldean. Eriosuar biltzan al lute metan ez bada, maillean. Zabalduz, bilduz, euri ta ateri, lazkartzen du bitartean; usai, kolore jatorrak galduz ez du gozorik ortzean".

Ezta ere baserriar gizarajoaren biotzean! Bestelako poza luke gaur-egun, bere garaitxoan, belar-zulo batean sartu balu dena. Euria ari dala! Egin dezala! Belarra gozogoia eta azka-rragoa letorke ondotik. Ta orduan bai kantatu lezakeala:

"Elur melur, ez nauk ire bildur; siloan badiat belar, eta etxean arto eta egur".

AZTIRI



Eskutitz irikiak

Garagarille-ko zenbakian, eta idaz-ki luze batean, Gurelesak izandako Bil-lera Nagusi baten berri ematen gen-dun. Idazki au dala-ta sei "eskutitz irikiak" iritxi zaizkigu ondoren, Beas-sain-Lasarte errien arteko baserriar argiak idatziakoa. Sei eskutitz oso mamitsu ta luzeak, arrazoizko pixuz astunak. Beren iritzietan, orde, oso desberdinaik ere bai. Batzuk alde, bes-teen aurka. Oien etorria!

GOIZ-ARGIK, iritzi oiek danak errespetatzen ditu. Baña ez diña emen argitaratzea, tokirik ez daukelako. Ira-kur, arrozoirik nagusia orixe dala: tokirik-eza. Onetzak gañera, etzaio ongi iruditzen burruka orren testigutza-rik ematea, bateren edo besteren alde nabarmenduaz. Ez degu infortxo min-du ta zapaldu nai.

Beraz, barkatu eskutitz iriki oiek ez argitaratzeagatik, ta jarrai zuen esne-problema al dan ongien eraman, eta diru-pilak jasotzen. Auxe opa diegu gutxi jasotzen dutela, esaten dabilzani ere. Gurelesa esku onetan dago, bere zuzendariak gizon argi ta pizko-rrak dira, korapillo guztiak askatzen trebeak. GOIZ-ARGIK ala espero du. Zuzendariak



RIKARDO ARREGI: Zurekin gaude!

Rikardo hil da.

Min ikaragarria eman digu. Beharbada, negar ere egingo genuen. Ez dago gaizki. Hilabete batzuetan berarekin gogoratuko gera. "Rikardo Arregik zion bezala", esango dugu. Mezak, han eta hemen, bere alde eskeinko dira.

Baina pentsa dezagun.

Rikardok eskuarteke lana bukatu ga-be utzi du. Ez zuen burutzerik izan, 26 urte dituala joan zaigulako. Bere idazki-paperak, denak, aztertut ditut, eta Rikar-dok lan luze-sakona egin zuen, ez da du-darik. Baina ia lan guzietan zera jarri liteke: "akabatu gabe".

Rikardok zeramagian lanari jarraipe-na ematea betebeharr bezala hartu behar dugu. Nola luzapena eman? Begira: kul-tura-gaiak maizago erabiliz euskeraz, munduko berriak eta goraberak euske-raz emanaz, batasuna bereiztasunak eta bitxikeriak baino maiteago izanaz, alfa-betaztearen bidez Euskal Herriko jendea "euskalduntzen" saiatuz, Etabar.

Rikardoren bizitza hautsi dala ez de-dilla kate guziaz hautsi. Rikardoren he-riotzak, erantzukizun aparteko batekin, gure lana hartzera bultzatu behar gaiztu.

joan mari torrealday



ARRUE-tar MIREN-en
jantzitegia

Egoki jantzi
nai dutenak,
ba dute aukera.

Jersey eta
illezko beste
jantzi guztiak

Miren Arrue. Urbieta, 22 DONOSTI